

Antolatzailea:



Harribeltza

HIESaren aurkako elkartea

Eskerrak:



OIARTZUNGO
UDALA



Wamut Merkatalagunea - OIartzun Tlf: 943491866
www.pachecoizetaloreak.com



LANDARBASOKO DIZDIZKA



Zuzendaria: Maddalen Dorronsoro

Bakarlarriak: Urtzi Uria, Allende Urritegi, Maitalen Leiza eta Unai Odrozola

Pianoa: Eneko Amundarain

LANDARBASOKO DIZDIZKA

Landarbaso Abesbatza Elkartearen barruan gazteei abesbatzen musika gerturatzeko helburuarekin sortu zen Landarbasoko Dizdizka gazte taldea 2016ko otsailean, aurrez ezagutza koralik ez zuten 35 bat gazterekin; gaur egun taldeak 40 bat abeslari ditu. Estreinaldia urte horretako apirilaren 24an egin zuen *Landarbaso Munduan I* kontzertuan, Erreenteriako Fatima Parrokian, eta ekainaren 11n egin zen *Munduan II* emanaldian. Beasaingo Musika Eskolako Narama Taldearekin 2017an egindako elkartruke artistikoaren emaitza ezin hobea ikusita, taldea sendotu egin zen. Geroztik, emanaldi ugari eskaintzen ari da.

Dizdizkak 2018ko ekainean egin zuen berak produzitutako lehen proiektua, *Una Tarde de Cine* izenekoa. Erreenteriako Atlantikaldia Jaialdiaren urte horretako edizioan ere parte hartu zuen, *Korronteen kontra* emanaldi berezia eskainiz. Urte bereko azaroan *Euskal Izpiak* izeneko kontzertua eman zuen.

Colindresen (Kantabria) elkatruke kontzertua eman zuen Laredoko Aila gazte abesbatzarekin 2019an. Urte bereko urrian Polancoko Nazioarteko Abesbatza Ziklo entzutetsuan parte hartu zuen. 2020ko urrian Donostiako Aita Donostia Musika Zikloan parte hartu zuen emanaldi osoarekin eta 2021eko martxoan Lesakako Harriondoa auditorioan abestu zuen. 2021eko irailean Frantzia eta Kataluinian bira egin zuen, Paueko Euskal Etxean zein Gironako Llafrancen emanaldi garrantzitsuak eskaniz.

2022ko urrian BIGARREN SARIA lortu zuen Toledoko Certamen Coral de la Canción Castellana Villa de Fuensalida lehiaketan, taldearen lehen lehiaketa nazionalean. 2023ko azaroan Asturiaseko Certamen Coral Villa de Avilés entzutetsuan BIGARREN SARIA lortu zuen, eta 2024ko martxoan Asturiasen bertan, Candaseko Certamen Infantil y Juvenil de Habaneras lehiaketa nazionalean ere BIGARREN SARIA lortu zuen.

OIARTZUNEN

UDAKO 28. KONTZERTUA

Harribeltza elkartearen aldeko kontzertu berezia

Done Eztebe Parrokian, 2024 uztailak 31, asteazkena, 19:30

Media vita

Erdi Arokoa. Mold.: Michael McGlynn

Hear my prayer

Moses Hogan

Cantos asturianos

Julio Dominguez

Rosita de un verde palmar

Herrikoia. Mold.: Manuel Guirao

Izar ederrak

Josu Elberdin

Mutil txaleko gorri

Junkal Guerrero

Indodana

Michael Barrett

Mangisondele

Michael Barrett

Tsela Moya-Ken Nayo Morena

Michael Barrett

Stand by me

Ben E. King. Mold.: Audrey Snyder

Lord, I know I been changed

Espirituala. Mold.: Larry Shackley

Itsasoa gara

Ken Zazpi. Mold.: Xabier Sarasola

Viva la vida

Coldplay